

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea Aramaioko 9 poligonoko 6 lurzatiaren xedapen-azterketari

Udalbatzak, 2024ko martxoaren 20an, behin betiko onartu zuen Aramaioko 9. poligonoko 6. parzelaren xehetasun-azterketa. Hori dela eta, iragarki hau argitaratzen da, jende guztiak horren berri izan dezan, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua eta ekainaren 23ko 2159/1978 Dekretuaren bidez onetsitako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko plangintza erregelamenduaren 140.6 artikulua ondo onartarako.

Erabaki honek xedapen orokor bat onesten duenez, honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.3 artikulua aplikatuz, Vitoria-Gasteizko Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua arabera. Nolanahi ere, egokiagoztat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Aramaion, 2024ko apirilaren 12an

*Alkatea*

ASIER AGIRRE MUGARTZA